

Irakaslego estimatua:

Emakundek **Nahiko! koedukazio programaren 2021/2023 edizioan** parte hartzera gonbidatu nahi zaituztegu. Programa Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundearena da, zeinen helburua ikasleen bizikidetzeta eta haien arteko harremanak hobetzea, berdintasuna eta giza eskubideak kontuan hartuta heztea, eta emakumeen aurkako indarkeriari aurrea hartzea.

2019-2021 edizioan **Lehen Hezkuntzako 49 zentrok** parte hartu dute, eta **5.000 ikaslek** baino gehiagok. **2021/2023 edizioan plazak mugatuak izango dira, izen emate ordenaren arabera esleituak izango dira.**

Nahiko! programaren materialetan **unitate didaktiko bat** dago gutxi gorabehera, **Lehen Hezkuntzako ziklo bakoitzeko hiruhileko bakoitzeko**. Unitate didaktikoak irekiak, malguak

eta zentro bakoitzaren programazioetara erraz egokitzeko modukoak dira, diseinu modularra dute eta. Programaren **material digitalizatuarekin** egingo da lan.



NAHIKÖ!

Izan ere, **Emakundek honako hauek eskaintzen dizkie zentroei:**

- **Material digitala doan eskuratzeko aukera.**
- Hiru hilean behin koedukazioari buruzko **jardunaldi orokorrak eta mintegiak.**
- Programa aplikatzean **koordinazioa, jarraipena eta aholkularitza teknikoa.**
- Aholkularitza-zerbitzua **familiekin lan egiteko.**

Eta **zentroek honako betebeharrak** izango dituzte:

- **Ikasturte osoan zehar parte hartzea.**
- **Jardunaldi orokorra zein mintegietara joan behar da. Osasun krisialdia dela eta oraingoz jardunaldi presentzialak, onlineko 2 hitzaldik ordezkatuko dute hiruhileko bakoitzean, egun**





ezberdinetan. Eta mintegiak ere online izango dira, maila bakoitzeko egun bat hiruhileko bakoitzean.



- Ikasleekin **material digitalizatuak** erabiltzea.
- Ikasturte bakoitzeko lehenengo hiruhilekoan zehar, gutxienez **informazio-bilera** bat deitzea eta antolatzea programan parte hartzen duten **familiekin**.

Ahalik eta zentro gehien lagundu nahi du, zentroek eskatutako **zikloetatik gutxienez bat** garatzen lagunduko zaie.

Nahiko! Programari buruzko informazioa zabaltzeko: [Nahiko!](#) edo emakunde.nahiko@euskadi.eus helbidearen bitartez jarri harremanetan.

Izen ematea egiteko [HEMEN](#).

Eskaerak egiteko epea **2021ko irailaren 20a arte zabalik** egongo da.



Izaskun Landaida Larizgoitia
Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen Zuzendaria

